

### 3.- FUNTSEZKO ELKARTEAK

Hiru multzotan banatzen ditugu gure funtsezko elkarteak. Alde batetik gure diru eta baliabide iturri diren gobernu instituzio ezberdinen multzoa dago. Bestetik, gure zerbitzuaren erabiltzaileen formakuntzarekin zerikusia duten elkarte eta instituzioen mendeko erakundeak. Hirugarren, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, etorkinekin zerikusia duten elkarteak eta gobernu kanpoko erakundeak. Hauek ezinbesteko laguntza ematen digute gure erabiltzaileekin segurtasun eta konfiantza harremanak sortzerako orduan, baita premiak antzemateko orduan ere. Funtsezko elkarte hauetako bakoitzak bere rola betetzen du eta beraiek gabe ezinezkoa litzateke gure zerbitzua eskaintzea. Guztion arteko elkarlana eta koordinazioa ezinbestekoa eta garrantzia handikoa da. Etengabeko harremanetan egongo gara guzti-guztiekin.

Esan bezala, momentuz Bizkaian zentratu gara. Beraz, probintzia honetan sortu ditugu hasteko gure funtsezko elkarteak.

Hauexek dira beraz gure funtsezko elkarteak:

**a) Gobernu instituzio ezberdinak: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bizkaiko zenbait udaletxe.**

Hauen rolak baliabide ekonomiko eta materialekin zerikusia du batez ere. Horren garrantzitsua den zerbitzu eskaintzaz informatze eta hedatze lana ere betetzen dute. Argi dago, hauek ezarritako betebeharrak eta baldintzak adostuko ditugula guztiekin. Beraz, beraiek markatutako parametro zehatzen barruan mugituko gara, beti ere aurretiaz onartu ditugunak. Zalantzarik gabe, hauekin guztiekin etengabeko elkarlanean arituko gara, 15ero jarraipen batzarrak eginez eta behar izanez gero, ezohiko batzarrak baita ere. Jarraipen batzarrek beraiek ezarritako betebeharrak eta baldintzen kudeaketarekin eta gure behar edo eskakizun berriekin zerikusia izango lukete batez ere. Guztia instituzio ezberdinek dituzten harrera planen esparruan emango litzateke.

**b) Bizkaiko formakuntza elkarte eta instituzioen mendeko erakundeak: euskaltegiak, helduentzako eskolak eta Lanbide.**

Bi zerbitzuek, gureak eta beraienak, harreman zuzena dute, elkar elikatzen dute. Beraiek dira gure zerbitzu erabiltzaile hornitzaileak. Guk berriz, beraien ikasleei bidea errazten diegu, ondorioz gehiago direlarik. Hauek ere gure zerbitzu eskaintzaren informatze eta hedatze lana egiten dute. Hauexek dira:

- **Bizkaiko euskaltegi pribatu eta publikoak (Udal euskaltegiak, AEK, IKA...).** Euskara ikastea ahalbideratzen dute. Gure hizkuntza ikasteaz batera, gure kultura eta ohiturak ezagutzeko aukera eskaintzen dute. Habe erregistroan inskribatuta dauden euskaltegiak dira.
- **Helduentzako eskolak (CEPA, CEPE...) Bizkaia.** Eskola-graduatu titulua eskuratzeko eskolak dira.
- **Lanbide Bizkaia.** Eusko jaurlaritzako zerbitzu honek lan munduratzera zuzendutako ikastaroak eskaintzen ditu. Funtsezko elkarte hauek gure zerbitzuarekin batera beste probintzietara hedatzea espero dugu.

**c) Etorquinekin zerikusia duten elkarteak eta gobernuz kanpoko erakundeak.**

Hauen rola gure erabiltzaileengana ahalik eta gehien hurbiltzea erraztea da. Gaztelaniaz hitz egiten ez duten erabiltzaileen kasuan adibidez, ezinbesteko laguntza ematen digute, bolondres modura itzultzaile lanak eginez. Horretaz gain, arreta eta orientazio lanak egiten dituztenez, gure zerbitzua ezagutarazten dute baita ere.

**- Etorquinekin Bat Elkartea. Etorkinaren jendarteratzeagatik.**

Bilbon daukate egoitza. Jatorri, bizipen eta sinesmen desberdineko pertsona-talde batek osatzen du eta ezagutzatik eta truketik abiatuta, sentsibilizazio, elkartasun, salaketa eta konpromiso proiektu batean elkarrekin lan egiten dute. Arreta, orientazioa, tailerrak, Kultur eta aisialdiko irteerak eta jarduerak eskaintzen dituzte besteak beste.

- **Ahislama.** Egoitza Bilbon duen Elkar Hego Amerika da. Arreta, orientabidea eskaintzen dute. Baita arlo juridikoari buruzko informazioa ere, egoera juridiko-administratiboa erregularizatu ahal izateko, hala badagokio. Beste helburu bat da euskal gizarteari, gizarte berri baten kultura-aniztasuna eta mestizajea erakustea da. Azkenik, gure gizartea toleranteagoa eta bidezkoagoa izaten laguntzea, berariazko proiektuen bidez.

- **Emakumezkoak aniztasunean elkartea.** Egoitza Basaurin dute. Herrialde ezberdinetako emakumeen kultura-arte taldea da. Emakumeen ahalduntzea sustatzea eta gure herria toki inklusiboagoa, justuagoa eta bidezkoagoa izan dadin sentsibilizatzea da hauen helburua.

- **Ongi etorri Errefuxiatuak Bizkaia.** Egoitza Bilbon dute eta etorkinen eta migratzaileen defentsarako plataforma da. Sentsibilizazio eta formakuntza ekintzak, komunikazio ekintzak eta mobilizazio ezberdinak egiten dituzte.

\*\* Hasiara Bilbon egingo dugun arren, Getxo eta Durangon hedatzeko aukera aurreikusten dugu eta hurrengo elkarte hauekin harremanetan jarri gara:

- **Getxoko etorkinak plataforma federazioa.** Atzerritarren inklusioa bultzatzea, komunikazioa, informazioa eta elkartzeko eta hausnartzeko guneak eskaintzea da helburua nagusiki.

- **Voz Africana Plataforma.** Egoitza Durangon dute. Afrikarren elkarteak biltzen dituen plataforma da.

Funtsezko elkarte hauek, areagotzen joango dira gure zerbitzua eskaintzen dugun herrien kopurua areagotzen doan heinean.